
LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES



JARDUEREN MEMORIA

2021

AURKIBIDEA

AURKEZPENA

1. BARNE-ANTOLAKETA ETA OSAERA
2. OSOKO BILKURAREN ETA BATZORDEEN JARDUERA
3. KONTSULTA-JARDUERA
4. ERAKUNDEAREN JARDUERA
5. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA ETA KONTSEILUAREN FORMAKUNTZA-PLANA
6. LAN-HARREMANEN ZERBITZU INTEGRAL BATERANTZ
7. PRECO, GATAZKAK KONPONTZEKO PROZEDURAK
8. ESTATUTUAREN ARABERAKO HITZARMEN KOLEKTIBOAK EZ APLIKATZEKO PROZEDURAK EBAZTEKO ORGANOA-ORPRICCE
9. AZTERLANAK ETA ARGITALPENAK
10. AURREKONTUEI BURUZKO INFORMAZIOA

AURKEZPENA

Bistan denez, Lan Harremanen Kontseiluaren jardueren aurkezpenak, urtero egiten dituen txostenetan agertzen denak, ezin du alde batera utzi EAEko errealitate soziolaboralaren testuinguru orokorra. 2021ean eta 2022ko hilabeteotan, testuinguru hori bereziki konplexua izan da, eta hala da orain ere. Pandemiak eragindako krisia ez dugu oraindik guztiz gainditu, eta Europako ekialdean gerra betean gaude; epe ertainera ondorioak aurreikusiezinak dira, baina egun jada energiaren eta lehengaien prezioa nabarmen garestitzen ari da, eta duela hamarkada batzuetatik hona bizi izan ez dugun inflazioaren gorakada ekarri du gerrak.

Ziurgabetasun-egoera batean gaude, errealitatea azkar aldatzen da, eta aurreikuspenak ere etengabe berrikusten dira. Hitzaurre hau idazten ari garela, neurri handi batean kontraesankorrak diren datuak ari gara erabiltzen. Alde batetik, pandemiaren faserik akutuenean BPGak izandako beherakada handiaren ondoren, susperraldi ekonomiko bati ekin diogu, nahiz eta errealitatean gertatzen ari dena baino azkarragoa eta sendoagoa izatea espero zen. Nolanahi ere, eta

aurreikuspenen arabera hurrengo hilabeteetan hazkundera moteldu egingo den arren, oraindik ez da atzeraldirik antzematen, adituen eta erakunde espezializatuen iritziz. Bestalde, enpleguari buruzko datuek hobekuntza nabarmena erakusten dute, bai ikuspegi kuantitatibotik, afiliazio-erregistroak aspaldi honetako altuenetakoak baitira, eta baita ikuspegi kualitatibotik ere, batez ere lan-egonkortasunari dagokionez, kontratazio mugagabeen maila azken urteetako baino askoz handiagoa baita, eta, beraz, azken lan-erreformak nabarmen eragiten duela dirudi. Azkenik, errealitate ezegonkor honen horizontean, oso inflazio handiaren mehatxuzko itzalak mantentzen dira, izan ere, zalantzarriak dira egungo errealitatearen izaera, egitura edo egoera, eta zalantzarria da, halaber, epe labur eta ertainean izango duen bilakaera. Horrek guztiak, zalantzarrik gabe, eragina du iraungitako hitzarmen kolektiboak berritzeko negoziazio-prozesuetan.

Nolanahi ere, testuinguru horretan, Lan Harremanen Kontseilua garen aldetik, lanean jarraitu behar dugu. Behin eta berriz esan dugun bezala, gure helburua da gizarte-eragileen

zerbitzura jartzea gure giza baliabide eta baliabide material guztiak. Zehatzago esanda, gure xedea da lan-harremanei laguntza integrala emateko egitura gisa jardutea, negoziazio-aldeei lagunduz lan-baldintzak zehazteko prozesu kolektiboetan, horrela langileen bizitza hobetzen eta gure enpresen lehiakortasuna eta jasangarritasuna areagotzen laguntzeko; izan ere, bidezko eta itundutako oinarrizko baldintzak beharrezkoak dira hazkunde sendoa eta gizarte indartsuagoa eta kohesionatuagoa lortzeko.

Azken xedea argia da, eta ezin da alde batera utzi, baina horrek ez du ezkutatu behar aurrean dugun sudokuren konplexutasuna. Nire ustez, bereziki garrantzitsua da negoziazio kolektiboa berehala sustatzea, gaur egun nahiko blokeatuta baitago, eta formulak bilatu behar dira helburu bi lortzeko: errentek epe ertainera duten erosteko ahalmenari eustea eta prezioak translazio mekaniko batean enpresaburuen soldata eta marjinetara eramateko arriskua kontrolatzea, hori inflazio-espinala elikatzeke faktore gehigarria litzateke eta. Helburu konplexua da, ez bairik gabe, baina uste dut hein handi batean horren mende dagoela susperraldia

benetan sendoa izatea, bai ekonomikoa, bai soziala.

Beti esaten dugun bezala, aurkezten dugun memoria, legezko betebeharrak izateaz gain, gizarteak gure lana egiteko esleitzen dizkigun bitarteko eta baliabideen erabilerari buruzko kontuak emateko modua da. Lan hori, irakurleak egiaztatu ahal izango duenez, eremu desberdinetan gauzatzen da.

Lehenik eta behin, azpimarratzekoa da gero eta gehiago direla gure egoitzetan sartzen diren hitzarmen kolektiboen negoziazio-batzordeak (90 baino gehiago hiru lurraldeetakoak batuta); horiei laguntzen diegu, materialki eta teknikoki, EAEko soldatapeko langileen %60 baino gehiagoren

lan-baldintzak arautzen dituzten akordioak negoziatzeko, prestatzeko eta sinatzeko. Gainera, egoitza ematen diegu eta lagundu egiten diegu euren edukiak dinamikoki kudeatzeko eratzten diren batzorde paritarioei.

Horrekin batera, Kontseiluak Preco Lanbidearteko Akordioa kudeatzen jarraitzen du, laneko gatazka kolektiboak modu autonomoan konpontzeko; hiru lurraldeetan 570 baino gehiago izapidetzen dira eta horietako laurden bat baino gehiago irtenbidea negoziatuta amaitzen dira.

Gure lana osatzeko, txostenak egiten ditugu, eta gure ezagutza eskura jartzen dugu, aldi berean zorrotza eta osoa dena, eta gure webgunearen eta komunikabideen bidez zabaltzen duguna; lan-

tresna gisa erabil dezakete arlo soziolaboraleko espezialista eta adituek, eta baita gizarte-eragileek beraiek ere, beren diagnostikoak egiten eta proposamenak aberasten laguntzeko.

Gure jarduera-eremu nagusiei buruzko iruzkin labur hau, esan beharrik ere ez dago, orain aurkezten dugun memorian askoz ere xeheago garatzen da.

Beste behin ere eskerrak eman nahi dizkiot egunetik egunera profesionaltasunez eta eskuzabaltasunez arlo horietako bakoitzean emaitzak hobetzen ahalegintzen den giza taldeari.

Tomás Arrieta Heras
Presidentea

1. BARNE-ANTOLAKETA ETA OSAERA

Lan Harremanen Kontseilua Euskal Autonomia Erkidegoaren organo bat da, eta irailaren 30eko 9/1981 Legearen bitartez sortu zen; nolahi ere, Lan Harremanen Kontseiluaren egungo erregulazioa ekainaren 23ko 4/2012 Legean jasota dago. Eusko Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren gai soziolaboraletarako kontsulta erakundea da, eta, hori ez ezik, sindikatuen eta enpresaburu konfederazioen arteko topaketa eta elkarriketarako organo iraunkorra ere bada (ikus horri buruzko INFORMAZIO GEHIAGO Kontseiluaren webgunearen **EGITURA** atalean).

Kontseilua alderdi bikoia eta paritariora da. Kontseiluaren azken berritze orokorra 2021eko azaroaren 15ean egin zen, eta data horretan argitaratu eta ondorioak izan zituen Lehendakariaren urriaren 19ko 40/2021 Dekretuak, Lan Harremanen Kontseiluko kideak kargutik kendu eta izendatzekoa denak. Horren ondorioz, gaur egun, honela osatuta dago: CONFEBASK enpresaburuen konfederazioak izendatutako zazpi kide eta ELA, LAB, CCOO eta UGT erakunde eta konfederazio sindikalek izendatutako zazpi kide (ikus **EGITURA** LHKren webgunean). Presidentea eta Idazkari nagusia ere Kontseiluko parte dira, baina ez dute botoa emateko eskubiderik. 2021eko maiatzean idazkari nagusiaren kargua ere berritu zen.

KONTSEILUKO LANGILEAK

2021. urtean, Lan Harremanen Kontseiluak honako langile hauek izan zituen: azterlan sozioekonomikoen arduradun bat, lan-harremanetako teknikari bi, administrazio-arloko buru bat, hizkuntza-normalkuntzako teknikari bat, negoziazio kolektiboaren arloko teknikari bat, arloko bost administrari, laguntzaile orokor bat, eta, gainera, behin-behineko langile gisa, Precoren prozedurak kudeatzeko eta negoziazio kolektiboari laguntzeko hiru lurralde-arduradun Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Apirilaren 21ean hauteskunde sindikalak egin ziren Kontseiluan, eta langileen ordezkari aukeratu zuten funtzionario-talde independentearen izenean haietara aurkeztu zen hautagai bakarra.

2. OSOKO BILKURAREN ETA BATZORDEEN JARDUERA

Lan Harremanen Kontseiluaren ohiko funtzionamendua Osoko Bilkuraren eta haren baitako Lan-batzordeen bitartez bideratzen da. 2021ean organo horien funtzionamendua honakoa izan da:

KONTSEILUAREN OSOKO BILKURA: Kontseiluaren Osoko Bilkurak ohiko bilera bi egin zituen 2021ean. Apirilaren 15ean egindako bileran, 2020ko behin-behineko likidazioa eta jardueren memoria onetsi ziren, eta Kontseiluko karguen egoeraren eta ordezkapenaren berri eman zen, baita Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren gauzatzearen berri ere. Ekainaren 9ko bileran, Kontseiluaren 2020ko ekitaldiko urteko kontuak eta urte horretako txosten soziolaborala onartu ziren, eta horrez gainera, Idazkaritza Nagusian egindako ordezkapenaren eta izendapen berriak organismoaren lanpostuetan eragindako aldaketen berri eman zen.

Osoko Bilkurak ezohiko hiru bilera ere egin zituen: ekainaren 24an, azaroaren 11n eta abenduaren 21ean. Lehen bileran, Kontseiluaren 2022. urteko aurrekontuak onartu ziren, eta baimena eman zen Emakunderekin lankidetzeta-hitzarmena egiteko proposamena prestatzeko prozesua hasteko, hain zuzen ere enpresetako berdintasun-batzordeetara joan eta horiei laguntzeko. Azaroaren 11n egindako bileran, Kontseiluko bi lanpostu izendapen askearen bidez betetzeko proposamena onartu zen, organo horri alde zuzeneko onespina eskatu zitzaion Arabako Preco kudeatzeko lurralde-arduraduna kargutik kendu eta berria izendatzeko, eta kideei jakinarazi zitzaizkien bitarteko funtzionario bat negoziazio kolektiboko teknikari

izendatu zutela. Azkenik, abenduaren 21ean egindako bileran, Osoko Bilkura formalki eratu zen, kide guztiak berritzeko prozesuaren ondoren, eta kideak izendatu ziren Lan Harremanen Kontseiluko batzorde iraunkorretarako: Prestakuntzakoa eta Txostenena. Azkenik, Osoko Bilkurari zera jakinarazi zitzaion, hastekoa zela Bizkaiko industria siderometalurgikoaren sektorean berdintasun-diagnostikoa egiteko berdintasun-politikan aditua den kanpoko profesional bat zuzenean kontratatzeko prozedura.

PRESTAKUNTZA BATZORDEA: Batzorde hori arduratzen da Osoko Bilkuraren ohiko bileretan aztertu beharreko gaiak prestatzeaz eta gai-zerrenda onartzeaz; bada, 2021. urtean bi aldiz bildu zen (martxoaren 25ean eta maiatzaren 27an).

TXOSTENEN BATZORDEA: Txostenen Batzordeak Kontseiluaren kontsulta eginkizuna hartu behar du bere gain, Osoko Bilkurak eskuordetuta. 2021. urtean, Memoria honen **KONTSULTA-JARDUERA** atalean jasotzen den txosten-eskaeren harira bildu da Batzorde hau.

Horietaz gain (Kontseiluaren beraren batzordeak), Precoren Batzorde Paritarioa ere biltzen da bere lokaletan, eta 2021. urtean izan duen jarduera Memoria honetako Precori buruzko kapituluan azaltzen da.

3. KONTSULTA-JARDUERA

Kontseiluak duen kontsulta eginkizuna garatzeko organo delegatua Txostenen Batzordea da, hala ezartzen baita Lan Harremanen Kontseiluaren funtzionamenduaren Araudian, zeina Osoko Bilkuraren 2014ko urtarrilaren 7ko Akordioaren bidez onartu baitzen.

Batzordeko kide gehienak iritzi berekoak direnean, Kontseiluak irizpen bat ematen du. Bestela, iritzi desberdinak daudenean eta adostasunik lortu ezin denean, Batzordeko kideen iritzi desberdinak zehazten dituen txosten bat egiten da.

2021eko ekitaldian txosten-eskaera hauek jaso ziren Kontseiluan:

- Dekretu Proiektua, zeinaren bidez 2022. urterako Euskal Autonomia Erkidegoaren Laneko Jaiegunen Egutegi Ofiziala onartzen baita.
- Dekretu Proiektua, zeinaren bidez enpresa-elkarteei eta sindikatuei dirulaguntzak ematea arautzen baita, beren jarduera-esparruko gaietan haiei lotutako pertsonen kualifikazioa hobetzeko formakuntza-planak garatzeko.

Horietan guztietan, Kontseiluak irizpen bat onartu zuen, eta haren eduki osoa LHKren webgunean kontsulta daiteke, **KONTSULTA-JARDUERA** atalean.

4. ERAKUNDEAREN JARDUERA

2021. urtean zehar, Kontseiluaren jarduera instituzionalaren erritmoari berriro heldu zaio pixkanaka, pandemiaren ondorioz nabarmen murriztu baita. Hauek dira ekitaldi aipagarrienak:

Maiatzaren 4an, LHK-ko presidentek eta Arabako PRECO kudeatzeko lurralde-arduradunak formakuntza-saio bat eman zuten, Sartu gizarteratze-enpresak antolatutako formakuntza-ikastaroaren barruan. Ikastaroaren izena: «La tipología básica de los conflictos laborales y el papel del Preco».

Uztailaren 1ean, Kontseiluko karguek bilera egin zuten Eusko Jaurlaritzaren Gasteizko egoitzan Idoia Mendia Cueva bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarekin eta Elena Pérez Barredo Lan eta Gizarte Segurantza sailburuordearekin, erakundearen idazkari nagusi berria aurkezteko eta hurrengo urteetarako lan-ildo nagusiak azaltzeko.

Irailaren 22an, Madrilen ospatu zen lehen ASEC sinatu zeneko 25. urteurrena. Ekitaldi horretan izan ziren idazkari nagusia eta Bizkaiko Preco kudeatzeko lurralde-arduraduna.

Urriaren 27an, presidentek bere ponentzia aurkeztu zuen, «La negociación colectiva como cauce preferente para avanzar hacia la igualdad de género: un reto complejo» izenekoa, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak antolatutako jardunaldiaren («La igualdad en la negociación colectiva de Euskadi») barruan.

Azaroaren 10ean, LHK-ko presidentek Laneko Segurtasun eta Osasunerako San Prudentzio Lan Fundazioaren XXI. Biltzarrean parte hartu zuen: «Vías complementarias para la canalización del conflicto: la mediación y el acuerdo».

Azaroaren 10ean, Gasteizko Cáritas Diocesanas-ek eta Arizmendiarieta Kristau Fundazioak antolatutako jardunaldian («Transformar la empresa para transformar la sociedad»), LHK-ko presidentek bere ponentzia hau aurkeztu zuen: «La empresa inclusiva, de la confrontación a la participación colaborativa».

Azaroaren 10ean, Kontseiluko presidentea eta idazkari nagusia Eusko Legebiltzarrean agertu ziren, Lan eta Enplegu Batzordeak eskatuta, honako txostenak aurkezteko: «2020ko EAEko egoera ekonomikoari eta lan-harremanei buruzko txostena» azaltzeko, Kontseiluko zerbitzu teknikoek egindakoa, eta «EAEko Plataformen Ekonomiara Hurbilketa» izenekoa, hain zuzen ere, Eusko Ganberak 2019ko abenduaren 12an onartutako legez besteko proposamena betetzeko egina.

Azaroaren 18an, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak jardunaldi bat egin zuen Gasteizen, «Los efectos de la pandemia sobre nuestro ordenamiento jurídico: libertades públicas, derecho laboral, económico y fiscalidad» izenekoa, eta LHK-ko presidentek bere ponentzia hau aurkeztu zuen: «El mercado laboral tras la pandemia: presente y futuro».

Azaroaren 19an, Gipuzkoako Foru Aldundiak «Gipuzkoako Partaidetzaren Eguna» jardunaldia antolatu zuen, eta LHK-ko presidentek bere ponentzia hau aurkeztu zuen: «La participación como elemento cohesionador en Gipuzkoa. ¿Cómo conseguimos acelerar?».

Abenduaren 14an, Gaztela-Mantxako Lan Harremanen Kontseiluak «Igualdad y Trabajo» izeneko jardunaldia antolatu zuen, eta LHK-ko presidentek jardunaldi horretan bere ponentzia hau aurkeztu zuen: «El papel de los Consejo de Relaciones Laborales en el ámbito de la igualdad y el trabajo».

5. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA ETA KONTSEILUAREN FORMAKUNTZA-PLANA

EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA

Orain dela pare bat urte, 2019ko ekitaldiaren amaieran, Kontseiluan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa onartu zen; plana aurrera doa Elhuyar enpresarekin elkarlanean, Eusko Jaurlaritzaren euskararen erabileraren normalizaziorako Plan Orokorren barruan (6. Plangintzaldia, 2018-2022 aldia).

2021eko urtarrilean, urte osorako plangintza zehaztu zen. Urtean zehar zortzitan batu zen Lan Harremanen Kontseiluaren Euskara Batzordea, eta denetan presente egon zen Elhuyar enpresa.

2021eko EKITALDIKO NEURRI NAGUSIAK

Neurketak

- Aurrez aurreko eta telefono bidezko harrera nolakoa den neurtzeko, hiru neurketa egin ziren hiru lurralde-egoitzetan (otsailean, ekainean eta urrian). Urtearen amaierako ekitaldian emaitzak aztertu ziren, eta lehen harreraren euskarak duen presentzia neurtzen jarraitzea erabaki zen (ez dira neurketa-epeak eta -kopuruak zehaztu).
- Maiatzean, euskararen ahozko erabileraren neurketa ere egin zen. Urtearen amaierako ekitaldian 2020an egin ziren neurketa biak eta 2021eko hau erkatu ziren, eta bilakaera aztertuta, ikusi zen euskararen ahozko erabilerak Kontseiluan dezente egin duela gora. Hala ere, euskararen ahozko erabilera neurtzen jarraitzea erabaki zen (ez dira neurketa-epeak eta -kopuruak zehaztu).
- Irailan, Kontseiluan lanean diharduten guztien arteko (zuzendaritza barne) idatzizko mezu laburren neurketa egin zen. Urtearen amaierako ekitaldian emaitzak aztertu ziren, eta barneko mezu laburretan euskarak duen presentzia neurtzen jarraitzea erabaki zen (ez dira neurketa-epeak eta -kopuruak zehaztu).
- Urte osoan zehar, aplikatzeko hitzarmenari buruzko kontsulten neurketa egin zen (eskaera zein hizkuntzatan jaso den, eta zein hizkuntzatan erantzun den). Urtearen amaierako ekitaldian emaitzak aztertu ziren, eta ikusi zen kontsultan gehienak gaztelaniaz jasotzen direla, nahiz eta gehienak Gipuzkoa aldetik datozen. Alde batera utzita euskaraz jasotzen diren kontsultak (gutxi dira, eta euskara hutsean erantzuten zaie), Kontseiluaren erantzuna

beti ele bitan bidaltzen da. Beraz, aplikatzeko hitzarmenari buruzko kontsultak ere neurtzen jarraitzea erabaki zen (eskaera zein hizkuntzatan jaso den, eta zein hizkuntzatan erantzun den).

- Urte osoan zehar egin zen, halaber, Kontseiluko langileek (zuzendaritza barne) lantaldeari edo lantokiko talde jaki bati bidalitako idatzizko mezu orokorren neurketa. Urtearen amaierako ekitaldian emaitzak aztertu ziren, eta euskarak gisa honetako mezuetan presentzia handia duela ikusi zen. Dena dela, normalkuntza-teknikariak aurrerantzean ere dagokion jarraipena egingo du.

Hizkuntza Irizpideak (Gobernu Kontseilua)

EAEko Administrazio Orokorren eta hari atxikitako Sektore Publikoaren Hizkuntza Irizpideak onartu ziren Gobernu Kontseiluan 2021eko apirilaren 13an, eta ekainaren 3an horien berri eman zuten Kontseiluan Elhuyarreko ordezkariak. Izan ere, EAEn, hizkuntza-irizpideak bi hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibide orokorrak dira, eta bidea erakusten dute euskara-planak diseinatu eta ezartzeko.

Formakuntza

Euskarazko formakuntzari dagokionez, 2021eko uztailean euskarazko mezu laburren idazketari buruzko formakuntza-saioa egon zen. Lan Harremanen Kontseiluko normalkuntza-teknikaria izan zen hizlari, eta saio osoa euskaraz egin zen.

Buletina

2021ean, BAGABILTZA buletinaren lau zenbaki argitaratu ziren: lehenengoa otsailean, bigarrena apirilean, hirugarrena ekainean eta laugarrena azaroan.

Argazki Lehiaketa

2021ean, halaber, argazki-lehiaketa bat antolatu zen langile guztien artean. Guztira, 11 langilek hartu zuten parte, eta ekimen arrakastatsua izan zen.

Administrazioarekiko harremanen mapeoa

Eusko Jaurlaritzaren baitako sail eta erakunde desberdinekin izandako harremanen mapeoa egin zen, eta ondorioztatu zen LHK-k, behintzat, euskarazko harrera eta euskarazko hartu-emana bermatzen duela.

Urte amaierako ekitaldia

Abenduaren 16an ekitaldi berezia egin zen Kontseiluaren Bilboko egoitzan (abenduaren 3an ospatutako Euskararen Egunari lotuta). Zati biko ekitaldia izan zen: lehen zatian, urteko neurketen balantzea egin zen, eta bigarren zatian, euskarazko «tribial» moduko bat egin zen.

FORMAKUNTZA PLANA

2020ko Memorian azaldu zen bezala, urte horretan formakuntza-beharren diagnostikoa egin zen eta «LHK-ko langileentzako formakuntza-plana» diseinatu zen. Formakuntzarako plan hori Kontseiluko langile guztiek koordinatutako hausnarketaren emaitza izan da, eta garatzen dituzten gaitasunen arabera hartzaile espezifikoak dituzten eremuak biltzen ditu. Hauek dira hasiera batean aurreikusitako eremuak:

- Enpresaren oinarriak
- Estatistika
- Bitartekaritza-teknikak
- Ofimatika
- Euskara
- Lidergoa eta talde-lana
- Komunikatzeko trebetasun teknikoak
- LHK-ko ezagutza-foroak: kasu praktikoak, etab.

Plan hori 2020ko azken hiruhilekoan hasi zen gauzatzen, Kontseiluko langile batek zuzenbide sindikalari buruzko hainbat formakuntza-saio eman zituelako, eta gai ofimatikoei buruzko zenbait ikastaro labur ere eman ziren. Hala ere, 2021ean jarraitu egin da garatzen. Zehazki, Kontseiluko langileek formakuntza jaso dute gai hauei buruz: Office 365 (Sharepoint); zibersegurtasuna; WEB orriaren kudeaketa; gatazkak konpontzeko eta kudeatzeko sistemak; ABEEEak arautzen dituen araudia; enpresetako berdintasun-planak; eta galderei, parafraiei eta birmarkatzeari buruzko tailerra.

6. LAN-HARREMANEN ZERBITZU INTEGRAL BATERANTZ

BATZORDE PARITARIOEI ETA HITZARMEN KOLEKTIBOAK NEGOZIATZEN DITUZTEN BATZORDEEI EMANDAKO ZERBITZUAK

2009. urtean, plan bat onartu zen, Kontseilua lan-harremanen zerbitzu integral gisa finkatzeko asmoz, negoziazio kolektiboa ahalik eta modu gehienetan egitea erraztuz (negoziazio-batzordeak eta batzorde paritarioak). Kontseiluaren oinarritzko eginkizunetako bat da, bere lege erregulatzailaren arabera, eta hori betetzea funtsezko faktorea da negoziazioan oinarritutako lan-harremanen sistema finkatzeko, Zuzenbideko estatu demokratiko batekin bat datorren aldetik.

Data horretatik aurrera, aurrera jarraitu da bultzada- eta laguntza-prozesu horretan, eta lankidetzak eskaini zaie sektoreko hitzarmen kolektiboak negoziatzen dituzten batzordeei eta horietako bakoitzak sortu behar duen batzorde paritarioari. Lankidetzak horrek hainbat laguntza-maila biltzen ditu: batzordea bera helbideratzea, lokalak bileretarako erabiltzea, batzorde paritarioei zuzentzen zaizkien eskaerak jaso eta tramitatzea, eta Kontseiluko teknikariek edo, batzuetan, Precoko zerrendetako profesionalen parte hartzea. Azken hauek moderatzaile, aholkulari eta akta-idazkari gisa jardungo dute, hitzarmenen negoziazioa sustatzen lagunduko dute, batzordeak eratzeko prozesuan, hitzarmen kolektiboak izenpetzen, paritarioen akordioak gauzatzen... eta aurkezpen telematikoa egingo dute Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan (Regcon).

Gainera, Kontseiluak Internet bidez sartzeko aplikazio informatiko bat du; horren bidez, Kontseiluan helbideratuta dauden batzorde paritarioetako kideek beren batzordean jasotako eta sortutako dokumentazio guztia aurki dezakete, bai eta eskaera eta jarduera guztien kudeaketa-egoerari buruzko informazioa ere. Bestalde, bilaketa-sistema bat ahalbidetzen zaie beren hitzarmen kolektiboko edozein artikuluri buruz beren batzorde paritarioaren aurrekari guztiak kontsultatzeko. Laguntza- sistema informatiko honen bidez, batzorde paritario horiei erraztasunak eman nahi zaizkie, beren eginkizunak eraginkortasunez bete ditzaten.

Lan-harremanen sistemak modu eraginkorrean funtziona dezan, pentsatu behar da negoziazio kolektiboa gertaera ez-zirkunstantziala dela, denboran zehar luzatzen dena, intentsitate desberdinarekin, hitzarmena negoziatzeko edo

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	ORGANO NAGUSIA	GUZTIRA
HITZARMENA EDO AKORDIO KOLEKTIBOA	2	7	2	4	15
SOLDATA BERRIKUSTEA	0	2	3	2	7
AURREERAGINA ZABALTZEA	0	4	1	0	5
HITZARMENA ALDATZEA	0	0	3	0	3
BATZORDE PARITARIOAREN ERABAKIA / ARBITRAJE-LAUDOA	2	1	0	1	4
NEGOZIAZIOA HASTEA ETA SALAKETAK	2	4	9	2	17
EZ APLIKATZEKO AKORDIOA	0	1	1	0	2
GUZTIRA	6	19	19	9	53

**2021ean
ERREGISTRATU ETA
ARGITARATZEKO
AURKEZTUTAKO
HITZARMEN
ETA AKORDIO
KOLEKTIBOAK,
SEKTOREKOAK EDO
LANBIDE ARTEKOAK**

abian jartzeko unearen arabera. Horregatik, negozioazio-batzordeei eta batzorde paritarioei laguntzeko programa Lan Harremanen Kontseiluaren funtsezko helburu bihurtu da.

Aurreko paragrafoetan aipatzen diren zerbitzuak sektoreko, probintziako edo autonomia-erkidegoko hitzarmen kolektiboetako batzordeei eskaintzen zaizkie. Ez da gauza bera gertatzen enpresa-hitzarmenei dagokienez, gero eta gehiago direlako eta Kontseiluaren giza baliabideak eta azpiegiturak mugatuta daudelako. Hala ere, eta erakundearen ahalmenen barruan, Kontseiluaren egoitzen erabilera eskaintzen zaie negozioazioaren garapenerako, aholkularitza eta laguntza emateko negozioazio-batzordea eratzean eta negozioazioaren amaieran. Eratze-bilkura eta azken bilkura moderatzen dira, eta dagozkion aktak egiten dira; ondoren, ateratzen den hitzarmena lan-agintaritzari aurkezten zaio, hitzarmen kolektiboen erregistro telematikoaren bidez, bai hitzarmen hori Kontseiluaren egoitzetan negoziatu denean, bai, Kontseilutik kanpoko egoitza batean negoziatu ondoren, alderdiek laguntza tekniko hori behar dutenean erregistratu eta argitaratzeko. 2021. urtean 24 inskripzio- edo gordailu-eskaera tramitatu ditu Kontseiluak Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan, enpresa-arloko negozioazio kolektiboaren esparruan.

2021. urtean zehar eutsi egin zaie COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiak 2020an eragindako berezitasunei, Lan Harremanen Kontseiluaren lurralde-egoitzetan sektoreko hitzarmen kolektiboak negoziatzeari dagokionez. Alde horretatik, bai negozioazio-batzordeek, bai batzorde paritario edo mistoek eskura izan dute

bileren formatu presentziala eta garapen mistoa konbinatzeko aukera, parte-hartze telematikoaren eta presentzialaren bidez. Hartara, bilera horietan bertarako aukera egon da, neurri batean behintzat, betiere une bakoitzean adierazitako edukieramugak errespetatuz eta prebentzio-neurri sanitarioak hartuz.

Lan Harremanen Kontseiluak laguntza teknikoa ematen dio ohiko negozioazio-jardueraren garapenari, eta horri buruz emandako informazio publikoari dagokionez, Lan Harremanen Kontseiluaren webguneak informazio hori eguneratzeko prozesuarekin jarraitu du (2020an hasi zen). Hala, azken hiru urteetan Kontseiluaren laguntza jasotako hitzarmen kolektiboen negozioazio-batzordeen zerrenda sartu da webgune horretan, eta honako hauek zehaztu dira: zein sektoreri dagokion, azken negozioazio-prozesuaren datuak (eraketa-data eta batzordearen azken bilerarena), eta argitalpen ofizialerako estekarekin sinatutako azken hitzarmenaren argitaratze-data; datu horiek guztiak bi hilabeterik behin eguneratu dira. Kontseiluan helbideratuta dauden edo laguntza teknikoa jasotzen duten batzorde paritarioei dagokienez, Kontseiluaren webgunean jasotako informazioan agertzen da noiz eratu diren eta 2021 urte osoan egin dituzten jarduera-motak.

Ondoren, Kontseiluak azken hiru urteetan bere zerbitzuak eskaini dizkien batzorde paritarioen eta negozioazio batzordeen zerrenda aurkezten da. Horietan, izartxo batekin identifikatu dira 2021. urtean hasitako negozioazio-eremu berriak, eta bi izartxorekin negozioazio-eremu berriak direnak, baina hainbat arrazoiengatik aurrera

egin ez dutenak eta Lan Harremanen Kontseiluaren laguntzarekin jardueraren bat egin dutenak.

2021. urtean Lan Harremanen Kontseiluaren egoitzek emandako zerbitzuaren datu garrantzitsu gisa, nabarmentzekoa da sektoreko berariazko batzorde paritarioetara joan dela. Hain zuzen ere, zerbitzu hori ondoren zehazten den informazioan zehazten diren sektoreei eta gaiei buruzkoa da.

KONTSEILUAK AZKEN HIRU URTEETAN HIRU LURRALDE-EGOITZETAN BERE ZERBITZUAK EMAN DIZKIEN SEKTOREKO HITZARMEN KOLEKTIBOEN NEGOZIAZIO-BATZORDEEN, BATZORDE PARITARIOEN ETA BATZORDE PARITARIO ESPEZIFIKOEN ZERRENDA ARABA

NEGOZIAZIO-BATZORDEAK:

- Hirugarrenentzako kirol-jarduerak
- Altzarien merkataritza
- Eraikuntza eta herri-lanak
- Zementuaren eratorriak
- Mercedes Benz España S.A.-ren garbiketa zerbitzuaren enpresa esleipendunak
- Ostalaritza
- Industria siderometalurgikoa
- Okindegien industria eta merkataritza
- Zuraren industria*
- Esku hartze soziala
- Eraikin eta lokalen garbiketa-zerbitzua
- Aisialdiko hezkuntza eta animazio soziokulturala
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua
- Salgaien garraioa errepide bidez, eta garraio-agentziak
- Bidaiarien errepide bidezko garraioa
- Ezgaitasuna eta Aniztasun funtzionala*
- UTE Biocompost
- Eusko Jaurlaritzaren zentroen garbiketa-zerbitzuaren emakidadunak
- Egoitza pribatuak*

BATZORDE PARITARIOAK:

- Hirugarrenentzako kirol-jarduerak
- Elikaduraren merkataritza
- Altzarien merkataritza
- Ehungaien merkataritza
- Eusko Jaurlaritzaren zentroen garbiketa-zerbitzuaren emakidadunak
- Eraikuntza eta herri-lanak
- Ostalaritza
- Industria siderometalurgikoa
- Zuraren industria
- Okindegien industria eta merkataritza
- Ardoaren industria eta merkataritza
- Esku hartze soziala
- Eraikin eta lokalen garbiketa-zerbitzua
- Aisialdiko hezkuntza eta animazio soziokulturala
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua
- Salgaien garraioa errepide bidez, eta garraio-agentziak

BATZORDE PARITARIO ESPEZIFIKOAK:

- Zuraren Industriak: Berdintasun Batzordea
- Herri Lanak eta Eraikuntza: Berdintasun Batzordea

BIZKAIA

NEGOZIAZIO-BATZORDEAK:

- Fruta eta barazkien biltegi jabeak eta bananen biltegi jabeak
- Hirugarren adinekoentzako egoitzak
- EAEko gizarte-ekimeneko irakaskuntza-zentroak
- Kolektibitateak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende dauden zuzeneko kudeaketako eskola-jantokietan (EAE)
- EAEko merkataritza (Esparru Akordioa igandeetako eta jaiegunetako atsedendialdiari buruz)**
- Elikaduraren merkataritza
- Merkataritza, oro har
- Ehungaien merkataritza
- Artisau-gozogintza eta -pastelgintza
- Arrain-kontserbak eta arrain gazituak
- Eraikuntza
- Butanoaren banaketa
- Eskola-garraioan eta patioan lagun egiteko zerbitzuaren enpresa esleipendunak, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendekoak direnak (EAE)
- Osakidetzako lokalen garbiketaren enpresa emakidadunak (EAE)
- Garbiketa-zerbitzuko enpresa emakidadunak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren eta UPV/EHUren mendekoak diren zentroetan (EAE)
- Bizkaiko Foru Aldundiaren zentroetan garbiketa-zerbitzuaren enpresa emakidadunak
- Petronor, S.A.-ren enpresa kontratistak, enpleguaren egonkortasunerako ituna
- Bilboko portuko enpresa-aniztasuna
- Bilboko Portuko zamaketa-sektorea
- Bikoizketa-enpresak (EAE)*
- Gasolina-zerbitzuguneak
- EAEn finantziarioa duten eta helduei euskara irakasten dieten euskaltegiak eta zentro homologatuak **
- Likoreen fabrikazioa eta ardoen hazle, esportatzaile, botilaratzaile eta biltegi-jabeak
- Ostalaritza
- EAEko ostalaritza (Esparru Akordioa)*
- Industria siderometalurgikoa
- Esku hartze soziala
- Eraikin eta lokalen garbiketa-zerbitzua
- EAEko eraikinak, lokal judizialak eta adingabeen zentroak garbitzea Bizkaiko lurralde historikoan
- Lokalak eta kirol-zelaiak
- Farmazia-bulegoak
- Bulegoak eta despatxuak
- Harria eta marmola
- Etxez etxeko banaketa elikaduraren sektorean*
- EAEko sukaldaritza kolektiboa**
- Tindategiak eta garbitegiak
- Errepide bidezko garraioa eta garraioaren jarduera lagungarri eta osagarriak
- Bidaiarien errepide bidezko zerbitzu erregularren eta diskrezionalen garraioa
- EAEko gaixoen eta istripua izandakoen errepide bidezko garraio sanitarioa anbulantzian

BATZORDE PARITARIOAK:

- EAEko gizarte-ekimeneko ikastetxeak
- Kolektibitateak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende dauden zuzeneko kudeaketako eskola-jantokietan (EAE)
- Metalaren merkataritza
- Arrain-kontserbak eta arrain gazituak
- Osakidetzako lokalen garbiketaren enpresa emakidadunak (EAE)
- Gasolina-zerbitzuguneak
- Ostalaritza
- Industria siderometalurgikoa
- Esku hartze soziala
- Eraikin eta lokalen garbiketa-zerbitzua
- Lokalak eta kirol-zelaiak
- Errepide bidezko garraioa eta garraioaren jarduera lagungarri eta osagarriak
- Bidaiarien errepide bidezko zerbitzu erregularren eta diskrezionalen garraioa
- EAEko gaixoen eta istripua izandakoen errepide bidezko garraio sanitarioa anbulantzian

BATZORDE PARITARIO ESPEZIFIKOAK:

- Industria siderometalurgikoa: Berdintasun Batzordea

GIPUZKOA

NEGOZIAZIO-BATZORDEAK:

- Ostatuak
- Aparkamendua eta trafikoaren antolamendua
- Arte grafikoak
- Etxez etxeko laguntza Andoainen (zerbitzuaren enpresa emakidaduna)
- Etxez etxeko laguntza Bergaran (zerbitzuaren enpresa emakidaduna)
- Etxez etxeko laguntza Donostian (zerbitzuaren enpresa emakidadunak)
- Etxez etxeko laguntza Hondarribin (zerbitzuaren enpresa emakidaduna)
- Etxez etxeko laguntza Irunen (zerbitzuaren enpresa emakidadunak)
- Etxez etxeko laguntza Legazpin (zerbitzuaren enpresa emakidaduna) *
- Etxez etxeko laguntza Zumaian (zerbitzuaren enpresa emakidaduna)
- Etxez etxeko laguntza Zumarragan (zerbitzuaren enpresa emakidaduna) **
- Merkataritza, oro har
- Ehungaien merkataritza
- Eraikuntza eta herri-lanak
- Eraikuntza, Errepideen Mantentze-lanen azpisektorea
 - Serbitzu Elkartea
 - Serbitzu Goierrialdea
 - UTE Ekialdea
 - UTE Goierrialdea
 - UTE Mendebaldea
 - UTE Miramon
 - UTE Urola Deba
- Gasolina-zerbitzuguneak
- Pasta, paper eta kartoien fabrikazioa
- Titulartasun publikoko Liburutegi eta Artxiboen kudeaketa *
- Okindegien industriak

- Elikaduraren industria eta merkataritza
- Pastelen eta gozoen industria eta merkataritza
- Gipuzkoako titulartasun publikoko kirol-instalazioak
- Esku hartze soziala
- Irungo Udalaren zentroen garbiketa-zerbitzua (zerbitzuaren enpresa emakidadunak)
- Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailak Gipuzkoako Lurralde Historikoan dauzkan zentroen garbiketa-zerbitzua (zerbitzuaren enpresa emakidadunak)
- Hondarribiko udal-egoitzen garbiketa (enpresa emakidaduna)
- Oiartzungo udal-egoitzen garbiketa (enpresa emakidaduna)
- Eraikin eta lokalen garbiketa-zerbitzua
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren mendeko eraikin eta lokalen garbiketa-zerbitzua (enpresa emakidaduna)
- Gipuzkoako eraikin judizialen eta adingabeen zentroen garbiketa-zerbitzua (zerbitzuaren enpresa emakidadunak)
- Kale-garbiketa
- Fruta eta barazki handizkariak
- Adinekoen egoitzak
- Sukaldaritza
- Garraiolariak
- Bidaiarien errepide bidezko garraioa

BATZORDE PARITARIOAK:

- Ostatuak
- Arte grafikoak
- Etxez etxeko laguntza Donostian (zerbitzuaren enpresa emakidadunak)
- Etxez etxeko laguntza Irunen (zerbitzuaren enpresa emakidadunak)

- Ehungaien merkataritza
- Eraikuntza eta herri-lanak
- Gasolina-zerbitzuguneak
- Pasta, paper eta kartoien fabrikazioa
- Okindegien industria
- Industria siderometalurgikoa
- Elikaduraren industria eta merkataritza
- Pastelen eta gozoen industria eta merkataritza
- Esku hartze soziala
- Irungo Udalaren zentroen garbiketa-zerbitzua (zerbitzuaren enpresa emakidadunak)
- Kale-garbiketa
- Lokalak eta ikuskizunak
- Gaixoen eta istripua izandakoen garraioa anbulantzian
- Bidaiarien errepide bidezko garraioa

BATZORDE PARITARIO ESPEZIFIKOAK:

- Arte grafikoak: Euskara Batzordea
- Pasta, paper eta kartoien fabrikazioa: Lanbideen sailkapena aztertze batzordea
- Elikaduraren industria eta merkataritza: Lanbideen sailkapena aztertze Lan
- Batzordea
- Industria siderometalurgikoa: Emakumeen eta gioznen arteko berdintasuna
- sustatzeko batzordea
- Esku hartze soziala:
 - Lanbideen sailkapena aztertze batzordea
 - Urruneko laneko eta telelaneko batzordea
 - Hizkuntza Normalkuntzako Sektoreko Batzordea (Euskara Batzordea)

* Negoziazio-esparru berria.

** Negoziazio-esparru berria lortzeko ahalegina, aurrera egin gabe.

APLIKATZEKOA DEN HITZARMENARI BURUZKO KONTSULTAK

2009. urtearen erdialdean, Kontseiluaren web orriaren barnean, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa bakoitzean, edo hala badagokio, lantoki bakoitzean, aplikatzeko hitzarmenari buruzko kontsulta-zerbitzu berria sartu da. Informazio hori ez da loteslea, hau da, ez da legezkoa, eta aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa zehazteko laguntza teknikoa ematea du helburu bakartzat. Kontsulta egiteko, nahikoa da formulario erraz bat betetzea, orri korporatiboaren bidez.

2020an kontsulta-kopuruak behera egin zuen, jarduera orokorrak moteldu egin baitzen Covid-19 koronabirusa agertzeak eragindako egoeraren ondorioz. Bada, horren ondoren, 2021ean, guztira 281 kontsulta erantzun dira. Horrek esan nahi du zerbitzu hau abian jarri zenetik urtean egindako eskaera-kopuruak gora egin duela, izan ere, eta, ehunekotan, %9,8ko hazkundea izan da 2018an erantzundako kontsultekin (256) alderatuta.

Aipatu beharra dago zerbitzu hau ondo finkatuta dagoela eta erabiltzaileek ongi balioesten dutela, gure gizarteko hainbat eragilek behin eta berriz erabiltzen baitute: sindikatuak, enpresa-elkarteak, gestoriek, profesionalen bulegoek eta, oro har, langileak.

Halaber, aipatzekoa da zerbitzu hori gestoriek, aholkularitza-enpresek eta abokatuen bulegoek erabiltzen dutela gehienbat, hain zuzen ere, lantoki jakin bateko jarduera nagusiaren arabera aplikatu beharreko hitzarmena zein den jakin nahi dutenek.

Kasu askotan, kontsulta horiek enpresa sortu berrien edo profesional autonomoen aldetik etortzen dira, lehenengo kontratazioa egin nahi dutelako eta ez dakitelako egiten duten eta egingo duten jarduera zein hitzarmen kolektibok arautzen duen.

APLIKATZEKOA DEN HITZARMENARI BURUZKO KONTSULTAK 2009-2021



Beste batzuetan, ordea, zalantzak sortzen dira, hain zuzen ere, 2012ko lan-erreformak lantoki bateko hitzarmen kolektiboan eragina izan duenean ez delako argi egoten zein den aplikatu beharreko hitzarmena, edo gerta daiteke, bestela, ekonomiaren etengabeko bilakaeraren testuinguruan sortu berri diren jarduera berriak izatea, eta EAEn aplikagarri diren hitzarmen kolektiboen unibertsoko ohiko esparru funtzioaletan berariaz jasota ez egotea.

Bestalde, zenbait erabiltzailek jarduera berari buruzko kontsultak behin eta berriz egin dituztela konturatu gara; horren arrazoia izan daiteke, agian, Kontseilu honek jarduera horiek egiten dituzten zentroetan aplikatu beharreko hitzarmenari buruzko zeharkako egiaztapena egitea nahi dutela, baina hori ez da zerbitzu honen xedea. Izan ere, lehen esan dugunez, kasu zehatz batean arau esparru konbentzionalari buruzko zalantzarik egonez gero laguntza teknikoa ematea da gure asmoa.

Nolanahi ere, azken urteetan kontsuluten kopuruak gora egin du, eta horrek erakusten digu zerbitzu horrek balio praktiko handia hartu duela.

7. PRECO, GATAZKAK KONPONTZEKO PROZEDURAK

1991z geroztik, eta Preco lanbide arteko bigarren akordioaren sinaduraren ondorioz, lortutako ondorengo akordioek sortutako gatazkak konpontzeko prozedurak etengabe kudeatu dira gaur egun arte, eta horietako azkena Preco Lan Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide arteko Akordioa da (66. zenbakiko EHAA, 2000ko apirilaren 4koa), 2000ko otsailaren 16an Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariarik handieneko sindikatu eta enpresaburu konfederazio guztiek sinatu zutena.

2021ean, Lan Harremanen Kontseiluak, bere hiru lurralde-zerbitzuen bidez, Preco akordio honen prozedurak izapidetzen jarraitu du, eta, jarraian, haren kudeaketari buruzko datuak azaldu ditu, bi parametro bereizi eta osagarritan oinarrituta. Alde batetik, 2021ean eskatutako prozedurei buruzko informazioa bildu dugu, eta zifra aurreko hamar urteetakoarekin konparatzen da, aldi horretan Precoren bitartez bideratutako lan-gatazken bilakaeraren ikuspegia eskaintzeko; eta, bestetik, urtean amaitutako prozedurei buruzko informazioa jaso dugu, haren kudeaketa eta emaitzak aztertzeko; eta aurreko urteetan amaitutako prozeduren azterketa konparatiboa ere egin da.

AURKEZTUTAKO ESKAERAK

GATAZKA KOLEKTIBOAK

Termino absolutuetan, grafikoan ikus daitekeenez, 2021. urtean gatazka kolektiboko prozeduren eskaerak 576 izan ziren. Kopuru hori 2020koaren antzekoa da (590), eta, azken bi urte horietan, pixkanaka baina etengabe 2017an hasi zen beheranzko joeraren etenaldia nabari da. Zehazki, aurkeztutako eskaerak %2,3 jaitsi ziren ehunekotan, 2020an bideratutako 590 eskaerekin alderatuta. Datu horrek berretsi egiten du memorietan normaltasunerako joera, 2014az geroztik aipatu dena. Izan ere, adiskidetzeari edo bitartekaritza auzibidera jo aurreko izapide eskusiboa denetik (2000. urtetik, azken Preco akordioa sinatu zenetik), urtean izapidetutako gatazka kolektiboko eskaerak 400-600 inguruan mantendu dira.

Krisi ekonomikoaren eta lan-erreformen urteek gatazka kolektiboen eskaeren gehikuntza oso nabarmena ekarri zuten, eta 2013an goia jo zuten, urte horretan kopurua izugarri igo baitzen, 1.349 gatazka izateraino. Zergatik? Sektore publikoan 2012ko abenduko aparteko paga ezabatzean hainbat erreklamazio egon zelako, eta, batez ere, hitzarmen kolektiboen kopuru handi baten aurreraeragina amaitzean, enpresa askok gai horri buruz langileei egindako komunikazioak masiboki aurkaratu zirelako.

Orduz geroztik normaltasunera itzuli ginen berehala, hiru ekitalditan 600 gatazka zenbatu zirelako, gutxi gorabehera. 2017tik 2019ra bitartean, askoz maila apalagoak izan ziren, 500 eskaera inguru, baina 2013ko krisiaren aurreko urteetan baino gehiago. Hala ere, joera hori eten


egin da 2020an. Urte horretan, beste krisi batek, kasu honetan osasun- eta ekonomia-krisiak, ikaragarri handitu du eskatutako prozedura-kopurua, eta kopuru maximora iritsi da, salbuespena delarik 2013a, aurrez esan denez.

Ohikoa denez, igoera hori, 2020ko datuekin alderatuta, oso desberdina izan da Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan: prozedura-kopurua jaitsi egin da Araban (-% 8,1) eta Bizkaian (-% 13,8), eta Gipuzkoan, berriz, nabarmen igo dira eskaerak (+% 46,4).

Eragindako pertsonen kopuruari dagokionez, 2021ean zenbaki absolutuetan 259.609 izan ziren, eta 2020an, 230.501. Horrek esan nahi du aurreko urtearekin alderatuta %12,7ko igoera egon dela eragindako langileen kopuruan. Hiru dira gehieneko datu hori justifikatzen duten gakoak, 2013koa izan ezik. Alde batetik, sektoreko gatazka kolektiboen kopurua nabarmen hazi da, eta 2021ean, 11 gatazka kolektibo izan dira guztira; 2020an, berriz, 6 gatazka kolektibo izan ziren. Bigarren gakoa zera da, Bizkaiko industria siderometalurgikoaren sektoreari eragin zioten bi prozedura aurkeztu eta izapidetu izana. Eta, azkenik, aipatu beharra dago enpresa handiei lotuta aurkeztutako eskaerak nabarmen igo direla; azken hauen baitan sartzen dira 1.000 langiletik gorako plantillei eragiten dieten gatazkek.

Gatazken eremuari dagokionez, 2021ean izapidetutako gehienak enpresa-eremukoak izan dira, ohikoa den moduan. Izan ere, hori horrela da, nahiz eta, lehenago esan den bezala, 2021. urtean zehar, ekoizpen-sektore osoari eragin zioten eskaeren kopurua pixka bat handitu egin den (11 eskaera, guztira 576 eskaeratatik); hala, 2020an izapidetu ziren sektoreko gatazka kolektiboen aldean (6), 2021ean bost gehiago izapidetu dira.

AURKEZTUTAKO GATAZKA ESKAERAK 2009-2021



Gainerako eskaerak enpresa-gatazkak izan ziren; horietatik 35 sektore publikoko enpresa eta erakundeetan (%6,1), eta gainerakoak (541) sektore pribatuko enpresetan (%95,9).

Sektore ekonomikoei dagokionez, 2021ean berriro ekin zitzaion zerbitzuen sektorearen nagusitasuna handiagotzeko joerari, industria-sektorearen aldean, 2021ean eragin dieten eskaeren kopuruari dagokionez (2020an alde txikiagoa izan zen). Zehazki, industria-sektoreko gatazkak aurkeztutako prozedura guztien %37,5 izan dira; zerbitzu-sektoreak, berriz, 2020an industria-sektorearen alde murriztutako prozedura-bolumenaren zati bat berreskuratu zuen, eta 2021ean zerbitzu-sektore hori eskatutako prozedura guztien %58,7rekin amaitu zen.

Analisiaren ikuspegi horretatik, komeni da gogoratzea 2006. urte horretatik aurrera industria-gatazkak pixkanaka gainbehera etorri zirela, eta zerbitzu-sektorean, aldiz, gorakada nabaria izan zela; 2009. urtean, industria-prozedurak %50etik beherako ehunekoetan kokatu ziren, zehazki, %45,4an, eta zerbitzuen sektorearekin lotutako eskaerak, berriz, %52,9 izan ziren. Bada, joera hori ez da inoiz leheneratu, hurrengo urteetan sendotuz joan da, eta 2015. urtean lortu zuen alde historikorik handiena: zerbitzuen sektoreak gatazken %65,3 bereganatu zuen, eta industria-sektoreak, berriz, %30,9. Arrazoizkoa da pentsatzea joera hori EAEko ekoizpen-sarearen osaeraren beraren bilakaerarekin lotuta dagoela.

Ekonomiaren eta sektorearen esparruaren arabera aurkeztutako eskaeretan izandako bilakaeraren azterketa horrek, aurreko urteetan ez bezala, alderantzizko erlazioa du lan-gatazkekin, 2021ean (urtariletik urrira) Lan Agintaritzaren aurrean

PROZEDURA-ESKAEREN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA

		2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
EAE	PROZEDURA-KOPURUA	1.349	581	573	613	494	476	464	590	576
	ERAGINPEKO LANGILEAK	454.179	160.280	186.645	200.406	134.363	114.190	117.988	230.501	259.609
ARABA	PROZEDURA-KOPURUA	203	148	94	133	103	109	131	159	146
	ERAGINPEKO LANGILEAK	95.509	59.971	34.688	38.793	36.694	55.872	40.620	113.007	44.197
BIZKAI	PROZEDURA-KOPURUA	739	289	326	319	245	253	232	334	288
	ERAGINPEKO LANGILEAK	214.213	85.874	138.650	143.871	45.786	46.230	62.160	105.668	178.511
GIPIZKOA	PROZEDURA-KOPURUA	407	144	153	161	146	114	101	97	142
	ERAGINPEKO LANGILEAK	144.457	14.435	13.307	17.742	51.883	12.088	15.208	11.826	36.901

erregistratutako greba-kopuruaren aztertzen baldin badugu. Izan ere, 2020. urtean, zerbitzuen sektoreak greba gehienak bildu zituen (greba-egunen %61, eta greba-jardunaldiak guztira %37 izan ziren industria-sektorean); 2021. urtean, berriz, industria-sektoreko grebak izan ziren nagusi, nabarmen gainera, urte horretan egindako greba-jardunaldi guztien %83 izan baitziren, eta zerbitzuen sektoreko greba-jardunaldiak %15 izan ziren.

Gatazka-motari dagokionez, prozeduren xede nagusia enpresaren erabakiari edo praktikari

dagozkien gatazkak dira oraindik ere; horien bidez, enpresak hartutako neurriak aurkaratzen dira, askotan, lan-baldintzen aldaketa handien alde aurreko kontsulta aldien porrota edota omisioa gertatu delako. Gatazka horiek prozedura guztien %50en gainetik ibili dira betiere; 2021ean, %51,4ra iritsi dira (296 eskaera), hau da, ehuneko 13 puntu baino gehiagoko igoera 2020an eskatutakoekiko (guztizkoaren %64,6 izan ziren orduan). Informazio horren arabera ikusten da Precoren prozedurek desadostasunak konpontzeko balio dutela bereziki, hain zuzen ere, enpresetako

zuzendaritzaren antolaketako eskumenak baliatzean sortzen diren desadostasunak konpontzeko.

Hala ere, nabarmentzekoa da, halaber, 2021ean arau eta itun edo hitzarmen kolektiboen interpretazioari edo aplikazioari buruzko gatazkek hazkunde nabarmena izan zutela, eta %39,4ra iritsi zirela (227 eskaera); horrek esan nahi du % 36,7ko hazkundera izan dela 2020arekin alderatuta. Ohikoa denez, horrelako gatazka gehienak (% 91,5) hitzarmen kolektiboak interpretatzeari edo betetzeari buruzko desadostasunak izan dira, eta % 8,5 soilik, lege-arauak interpretatzeari edo aplikatzeari buruzkoak.

2020an hitzarmen kolektiboan negoziazioekin edo lan-baldintzei buruzko enpresa-itunen negoziazioekin lotutako gatazka kolektiboan kopuruak jaitsuera izan zuen, batez ere urte


horretan negoziazio kolektibo osoa moteldu zelako pandemiaren ondorioz. Bada, 2021ean horrelako prozeduren kopuruak gora egin zuen pixka bat. Mota horretako gatazketarako 31 eskaera izan ziren (aurreko urtean 22 izapidetu ziren), baina kopuru hori urrun dago oraindik 2019an eta 2018an horrelako gatazketarako aurkeztu ziren eskaeretatik: 55 eta 43, hurrenez hurren.

Aurkeztutako gainerako gatazkek honela banakatzen dira: enpresa bateko erakunde sindikal jakin bateko afiliazio-portzentajea egiaztatzeko 9 eskaera, PRECOren aplikazio-arauetan onartutako aukera zenbait hitzarmen kolektibotan aurreikusitako eskubide sindikalak gauzatzeko ziurtapen-beharrei erantzuteko; hitzarmen kolektiboko batzorde paritarioek aurkeztutako 3 prozedura, enpresaren barruan gertatutako desadostasun bati buruz, eta beste 10, bestelako gatazka kolektiboek buruzkoak (adibidez, Gipuzkoako eraikuntzako eta herri-

lanetako hitzarmen kolektiboaren 48. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz).

2021eko datu esanguratsu gisa, COVID-19 pandemiak eragindako krisiak Preco prozeduren kudeaketaren garapenean izan duen eragin garrantzitsua azpimarratu behar da.

Hala, alde batetik, nabarmendu behar da azken bi urteetan krisi horrek eskatutako prozeduren kopuruari eragin diola, bai eta bideratutako gatazken tipologiari ere; gatazka horietako asko langileen babes- eta segurtasun-neurriekin lotuta daude, batez ere sektore jakin batzuetan: soziosanitarioa, 10/2020 Errege Dekretuaren arabera errekonstruatu daitekeen baimen ordaindua berreskuratzea, hainbat enpresatan ezarritako ABEEEak, krisiak lan-egutegietan eta -ordutegietan duen eragina eta alarma-egoeraren indarraldian onartutako lan-araudiarekin zerikusia duten beste gai batzuk. Bereziki,



hainbat sektoreri dagokienez, pandemiak horietan izan duen eraginaren intentsitatearen ondorioz, aipatzekoak dira hirugarren adinekoentzako zentroak, errepide bidezko garraio sanitarioa anbulantzian, hainbat esparrutako garbiketak eta ehungaien merkataritza.

Bestalde, Preco prozedurak bateratzeko topaketetan osasun-arreta eta -segurtasuneko neurriak hartu beharrak berak beharrezko egin zuen horiek garatzeko modua azkar egokitzea. Hala, adiskidetze-saioak modu birtualean egiteari ekin zitzaion 2020ko maiatzean, eta horrela jokatu da 2021ean ere, Lan Harremanen Kontseiluaren hiru lurralde-egoitzetako teknikariek eta administrariak egindako ikaskuntza-prozesu intentsiboari esker; eta hori guztia, SIMA Fundazioak (Bitartekaritza eta Arbitraje Zerbitzu Interkonfederala) Estatuko gatazkak konpontzeko sistema autonomo guztietarako online emandako formakuntzako ekimen bateratuaren esparruan. Egun horretatik aurrera, Preco prozedura gehienak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hiru lurraldeetako langileek antolatutako bilera birtualen bidez garatzen ari dira. 2021. urteko datu berri gisa, aipatzekoa da adiskidetze-saioen modalitate presentziala berreskuratuz joan dela; bada, modalitate horren osagarri dira formatu telematikoa bakarrik egindako adiskidetze-saioak, eta formatu mistoan (aldi berean presentziala eta telematikoa) egindakoak. Hori guztia pandemiaren intentsitatean izandako gorabeheren eta prozeduretan parte hartzen duten aldean eskaeren euren arabera egin da.

Ikuspegi kualitatibotik, adiskidetze-saioak modu telematikoa egitea elkarrizketa-modalitate berri gisa ikusten da gatazka kolektiboen esparruan. Ez du galarazten negoziazio-prozesu errealak eta eraginkorrak garatzea, eta akordioak lortzeko

aukera ematen du gatazkaren baldintzek eta aldean borondateak horretarako aukera ematen dutenean, nahiz eta jakin topaketa birtualak aurrez aurreko topaketa- eta kontaktu-modalitatearen aurrean zer muga dituen.

BANAKAKO GATAZKAK

Preco borondatezko prozedurei buruzko Lanbide Arteko Akordioaren 6. artikulua babesean, Precoren Batzorde Paritarioak hitzarmen kolektiboetan ezarritako bereizgarri jakin batzuk onartu zituen. Zehazkiago, Precoren Batzorde Paritarioak zenbait enpresa hitzarmenetan ezarritakoa onartu zuen, eta baimena eman zuen hitzarmen kolektiboaren interpretazio edo aplikaziotik eratorritako banakako gatazkak Precoren prozeduren bitartez izapidetzeko.

Hala ere, bide hau gutxitan erabili izan da beti. Izan ere, azken sei urteetan banakako gatazken 13 espediente izapidetu dira Arabako Kontseiluaren egoitzan eta 2021. urtean gisa horretako gatazken eskaera bakarra aurkeztu da, emaitza adostasun eza izan delarik.

GATAZKA KOLEKTIBOEN PROZEDURAK KUDEATZEA

PROZEDURAK, AMAITZEN DIREN FASEAREN EDO UNEAREN ARABERA

Precoren prozeduretan bi fase bereizten dira; hasierako fasea deitutakoan, Lan Harremanen Kontseiluko langile teknikoek adiskidetzeari helburu duen topaketa bat antolatzen dute, prozeduren kudeaketa eta sustapenaz arduratuz, eta bigarrenean, bi alderdiek ados jarrita aukeratutako kanpo profesional baten laguntzarekin prozedura gauzaten da. Lehen fasean adostasunik lortzen ez denean ekiten zaio bigarren faseari, eta normalean, gatazkaren alderdi bakoitzaren gehiengoak nahi duen

guztietan; bigarren fasea formatu zabalekoa izaten da, luzea eta saio askorekin.

2000. urtetik, Preco da urriaren 10eko 36/2011 Legeak —gizarte-jurisdikzioa erregulatzen duenak— eskatzen duen adiskidetze-izapidea agortzeko bide bakarra, gatazka kolektiboko demanda judizial bat planteatu aurretik. Hori dela eta, hasierako fase bat aurreikusten da eta Precon aurkeztutako eskaera asko hasierako fase horretan amaitzen dira; izan ere, alderdiek, batzuetan, besterik gabe prozesuko eskakizun bat agortzeko jotzen dute fase honetara, ez baitute ikusten gatazka akordio baten bidez behar bezala konpontzeko aukerarik.


Hala eta guztiz ere, Kontseiluko teknikariek jarraitzeko joera ere sendotzen ari da, horrela

akordio bat lortzen ahalegintzeko profesional batekiko prozedura ireki gabe. Eta hori gero eta gehiagotan gertatzen ari da gainera. Hortaz, beheko grafikoko azken zortzi urteetako bilakaera aztertzean, bi ezaugarri horiek kontuan hartu behar dira.

Ikus daitekeenez, 2021ean ere bi alderdiek oso gutxitan onartu dute adiskidetzeko, bitartekaritzako edo arbitrajeko profesional batekiko prozedura baten eraginpean jartzea. Hala, finkatu egin da azken zortzi urteetan prozedura hasi eta amaitzeko joera, hasierako fasean, hain zuzen ere, Kontseiluko teknikarien esku-hartze bakarraren bidez, adiskidetze-saioaren moderazio-eginkizunetan. Izan ere, adiskidetze-saioa, gero eta maizago, zenbait bileratan egiten da, non gatazkaren aldeek hasierako jarrerak moldatzen baitituzte.

2012ko lan-erreforma indarrean sartu arte, 2001. eta 2011. urteen artean prozedura (adostasunarekin edo adostasunik gabe) hasierako fasean amaitzen zen kasuen batez besteko banaketa edo profesional batekin jarraitzen zuen kasuen banaketa %75,9koa eta %24,1ekoa zen, hurrenez hurren. 2013. urtean, hitzarmen kolektiboen aurreraeragina amaitu osteko gatazken ondoriozko eskaera kopuru handia zela eta, hasierako fasean bakarrik garatutako prozedurei dagokien ehunekoa %95,6ra igo zen, eta horietatik ia guztiak bide judizialera pasatu ziren hasierako fasea amaitu ondoren.

2013. urtean izan zen salbuespena gaituta, profesionalak parte hartu zuen prozeduren ehunekoa berreskuratu zen hein batean, baina ez, inondik ere, urte horren aurreko balioetan. Hala ere, ordutik aurrera aldeek interesa agertu zuten Kontseiluko teknikarien laguntzarekin



lanean jarraitzeko. Testuinguru horretan, 2014tik gaur egun arte, profesionalen esku-hartzearekin hasitako prozedurak %11tik %5era bitartean egon dira. Azpimarratzekoak dira 2018ko urtea, eskabideen %5,3an soilik eskatu baitzen esku-hartzea, eta 2021. urtea, non 30 prozeduratan baino ez baitzen profesional baten presentzia eskatu. Izan ere, 2021ean, 2014az geroztik adierazitako joera finkatu egin da, eta urte-amaierako datuen arabera profesional batek esku hartu du eskatutako prozeduren %5,2an.

GATAZKA KOLEKTIBOEN PROZEDUREN EMAITZA. TERMINO OROKORRETAN










Gatazkek konpontzeko tasa berreskuratu egin zen 2021ean, eta %21,7koa izan zen (132 prozedura); hau da, aurreko urtekoa (%18,7) baino 3 puntu gehiagokoa. Aldiz, 2016/2021 aldiko urteko batez bestekoarekin alderatuta (% 24,6), oraindik ere 2,9 puntuko aldea dago beherantz.

Kopuru hori 2021eko abenikoak eta laudoak urte horretan amaitutako eskabide guztiekin alderatzearen emaitza da. Benetan izapidetutako eskabide guztiekin alderatuz gero (atzera egindakoak eta izapidetzea ez onartzeagatik nahiz kontrako alderdiak ez agertzeagatik artxibatutakoak kenduta), konpondutako ehunekoa, errealitatetik hurbilen dagoena, %24,9koa izango litzateke.

Precoren eremuan konpondutako gatazken ehuneko horrek langile guztien %8,7ri egin zion mesede (23.308 guztira), eta horrek beheranzko aldaketa bat ekarri zuen, %58,2koa hain zuzen ere, 2016/2020 aldiko urteko batezbestekoarekiko. Bada, ondorio hau atera daiteke: 2021ean, konpondu ziren gaiak, batez ere, plantilla txikiagoa zuten enpresei buruzkoak zirela, konparazio hau egiteko aurreko urteetan hartutako aldea.

Hiru lurralde-egoitzetan, gatazkek konpontzeari dagokionez, alde handiak daude, ehunekotan, horietako bakoitzean amaitutako prozedurei dagokienez: Araba (%27,9), Bizkaia (%20,1) eta Gipuzkoa (%19,4).

PROZEDUREN EMAITZA, TERMINO OROKORRETAN (2013-2021)


AMAITUTA 2013  131 KONPONDUTA - % 10,4	1.266 1.135 KONPONDU GABE - % 89,6
AMAITUTA 2014  119 KONPONDUTA - % 19,9	598 479 KONPONDU GABE - % 80,1
AMAITUTA 2015  125 KONPONDUTA - % 23,1	541 416 KONPONDU GABE - % 76,9
AMAITUTA 2016  167 KONPONDUTA - % 25,7	649 482 KONPONDU GABE - % 74,3
AMAITUTA 2017  147 KONPONDUTA - % 29,2	504 357 KONPONDU GABE - % 70,8
AMAITUTA 2018  120 KONPONDUTA - % 23,6	508 388 KONPONDU GABE - % 76,3
AMAITUTA 2019  130 KONPONDUTA - % 26,5	490 360 KONPONDU GABE - % 73,5
AMAITUTA 2020  102 KONPONDUTA - % 18,7	545 443 KONPONDU GABE - % 81,3
AMAITUTA 2021  132 KONPONDUTA - % 21,7	608 476 KONPONDU GABE - % 78,3

HASIERAKO FASEAN AMAITUTAKO GATAZKA KOLEKTIBOEN PROZEDURAK

Hasiera batean eskaera guztiak fase horretatik pasatzen dira, salbu eta bi alderdiek alde aurretik adierazi badute nahiago dutela zuzenean profesionalarekiko prozedura irekitzea. Adiskidetze, bitartekaritza edo arbitraje bateranzko bitarteko fasea izan behar zuen hasiera batean, baina azken fasea ere izan daiteke baldin eta bi alderdietako batek onartzen ez badu profesionalaren esku-hartzea dakarren prozedura bati hasiera ematea.

Kasu horretan jarduna adostasunarekin amai daiteke, baldin eta Lan Harremanen Kontseiluko teknikariek lortzen badute alderdiak adostasun horretara iristea haiekin egiten dituzten bileretan, edo adostasunik gabe, alderdiek akordiorik lortzen ez badute.

Hurrengo grafikoan profesional batek lagundutako adiskidetzetik, bitartekaritzarik edo arbitrajetik gabe fase horretan amaitu diren 2021. urteko eskaeren datuak adierazten dira. Termino absolututan, fase horretan 578 prozedura amaitu dira guztira, hau da, 2021ean amaitutako eskaera guztien %95,1; bada, horrek 2013an hasitako ildo historikoa berresten du, hau da, prozeduren %90 gutxi gorabehera hasierako fase horretan amaitzen direla.



2021. urtean, grafikoan adierazten den bezala, hasierako fasean amaitu ziren gatazka kolektiboen artean (578, guztira) alderdien arteko akordioarekin amaitu ziren %19,2 (111). Horrek esan nahi du, 2020. urtearekin alderatuz (%16,3), igo egin direla 2,9 puntu portzental. Ehuneko hori, bada, nahiko bat dator 2021. urtean akordioek izan duten %3ko igoera orokorrarekin, lehen adierazi denez.

GATAZKA KOLEKTIBOAK KONPONTZEKO PROZEDURAK, PROFESIONALAREKIN

Aldez aurretik adierazi dugunez, gutxi dira hasiera fasean konpondu ez diren eta, alderdiek adostuta, aukeratutako kanpo profesionalaren esku hartzearekin adiskidetze, bitartekaritza edo arbitraje moduan jarraitzen duten prozedurak. Zehazki, 2021ean soilik 30 espediente izan dira; zehazki, 19 adiskidetze, 9 bitartekaritza eta 2 arbitraje. Ehunekotan, prozedura horiek 2021ean amaitutako prozedura guztien %4,9 izan ziren, eta prozeduretan zeuden langile guztien %20,8 hartu zituzten.

Prozedura horien emaitzari dagokionez, aintzat hartuta adiskidetze, bitartekaritza eta, jakina, gatazka konpontzeko eragina aldez aurretik zehaztuta duten arbitrajeen ehuneko bateratua, bada, 2021ean adostasunez amaitu ziren fase horietan ebatzitako prozedura guztietatik(21), %70, eta hala amaitu ziren, halaber, urte horretan Preco akordioaren esparruan lortutako akordio guztietatik (132), %15,9.

ADISKIDETZEAK

Adiskidetzea Precok erabilitako prozeduretako bat da; prozedura horretan, profesional batek alderdiei beren gatazkari irtenbide zuzen bat lortzen laguntzen die abeniko baten bidez.

2021ean, guztira, 19 adiskidetze-prozedura amaitu dira aldean artean adostuta izendatutako profesionalarekin (amaitutako prozeduren %3,1).

Ondorengo grafikoan, adiskidetze horiek azken urteetan amaitzeko moduak aurkezten dira. Profesional baten bidezko adiskidetzearen eraginkortasuna oso handia izan da urte honetan ere, serie historiko osoan bezala; izan ere, 16 adostasun lortu dira, hots, 2021ean amaitutako adiskidetze guztien %84,2; horrek hazkunde esanguratsua dakar, 2020an prozedura-mota horren bidez konpondutako gaien % 63,2arekin alderatuta.

Afiliazioa egiaztatzen denean ere adiskidetze baten aurrean gaudela esan dezakegu. Kasu horretan, bi alderdiek alde aurretik onartzen dute hirugarren pertsona inpartzial jardulearen ziurtatzea, eta beraz, betiere, adostasunarekin amaitzen da prozedura. 2021ean izan diren 19 adiskidetzeetatik, 14 afiliazioa egiaztatzeko prozedurak izan dira.

ADISKIDETZEAK
AMAITZEKO MODUA
(2011-2021)




BITARTEKARITZAK

Bitartekaritza Precoren beste prozedura bat da; prozedura horretan, profesionalak alderdien arteko akordio zuzenik lortu ez duenean, bi alderdiek onar edo bazter dezaketen proposamen idatzi bat formulatuz amaitzen du bere jarduna.

2021. urtean, 9 bitartekaritza-prozedura amaitu ziren (profesionalen esku-hartzea zuten prozedura guztien %30), bi aldeek onartutako adostasun-edo proposamen-tasa %57,1ekoa izan zen, eta portzentajea %42,9ra igotzen da, baldin eta alde biek atzera egiteagatik izendatutako profesionalak bitartekaritza-proposamena egin aurretik amaitutako prozedura baztertzen bada. Nolanahi ere, 2021ean, bitartekaritza-prozeduraren bidez konpondutako gaien kopurua nabarmen jaitsi zen, 2020an konpondutakoen aldean; izan ere, 2020an amaitu ziren bitartekaritza-lanen % 57,1 izan ziren (% 66,7, baldin eta kontuan hartzen ez bada 2020an amaitu zen bitartekaritza-prozedura, bi aldeek atzera egin zutelako bitartekaritza-proposamena egin aurretik).

**BITARTEKARITZAK
AMAITZEKO MODUA
(2011-2021)**



-  Adostasunez
-  Adostasunik gabe
-  Atzera botatakoak eta beste batzuk

ARBITRAJEAK


Arbitrajean, azkenik, alde zaureretik profesionalak ematen duen laudoa onartzeko konpromisoa hartzen dute alderdiek. Beraz, prozedura hauetan ezinezkoa da adostasunik eza gertatzea.

2021ean ere kopurua oso txikia izan da, eta, horrela, finkatu egin da 2012ko lan-erreformatik aurrera izan den beherakada bortitza. Ziurrenik, erreforma horrek sortutako desadostasun-giroarekin lotuta dago, eta joera hori 2014an ere hauteman zen. Zehazki, 2019an eta 2020an bezala, 2 arbitraje baino ez dira eman.

2021eko KUDEAKETAREN LABURPENA

2021ean 608 prozedura amaitu dira (horietako batzuk aurreko urteetan hasitakoak ziren), hau da, %11,6 gehiago 2020koen aldean (545); izan ere, 2020ko ekitaldian ere iguera nabarmena egin zen (%11,2koa), 2019aren aldean, prozedura amaituetan. Guztira, 132 eskaeratan lortu zen gatazkari konponbidea ematea, hau da, amaitutako prozedura guztien %21,7an. Horrek esan nahi du 3 puntuko iguera egon dela aurreko urtearekin alderatuta, non %26,1koa izan baitzen. Hala ere, adostasunarekin amaitutako prozedurak %24,9 dira, baldin eta beste aldeia ez agertzeagatik, atzera egiteagatik edo izapidetzeko ez onartzeagatik izapidetu ezin izan ziren eskaerak deskontatzen badira.

Bestetik, profesional baten esku-hartzearekin aurrera eramandako 30 prozeduretatik, %70 gatazka konponduta amaitu dira, eta horrek berresten du bi aldeek bide horiek erabiltzea onartzen dutenean bide horiek eraginkorrak direla. Izan ere, kontuan hartuta 2020an prozedura-mota horren bidez konpondutako gaiak %60 izan zirela, iguera ehuneko hamar puntukoa da.



Banakako gatazkei dagokienez, azken zortzi urteetan izapidetutako 13 prozeduretatik hiru bi aldean adostasunarekin amaitu ziren, eta bederatzi, aldiz, desadostasunarekin. Dena dela, 2021ean aurkezte den mota honetako prozedura bakarra adostasunik gabe amaitu da.

Adiskidetze-saioak modu telematikoan egiteari ekin zitzaion 2020an, arrakastaz ekin ere, eta ekimenak bere horretan iraun du 2021ean; beste ezeren gaineratik, aukera ematen jarraitu du Preco prozeduren kudeaketari eusteko, atzerapenik gabe, nahiz eta gero eta prozedura gehiago eskatzen diren, batez ere alarma-egoera amaitu denetik. 2021. urtearen

amaieran, telematikoki ebatzitako prozeduren eta modalitate presentzian edo mistoan (presentzian eta birtualean) ebatzitako prozeduren arteko «bizikidetz» ikusten da, nolabait esanda. Gainera, arreta-formula telematiko horri esker, pertsonen arteko joan-etorriek eta harremanek eragindako arriskuak murriztu dira, eta beste egoera batean bidaietarako eta joan-etorrietarako zailtasun bereziak izango zituzten pertsonen parte-hartzea erraztu da.

PRECOREN BATZORDE PARITARIOAREN JARDUERA 2021ean

Lan Harremanen Kontseiluaren barruan eta haren zuzendaritzaren eta talde kudeatzailearen laguntzarekin funtzionatzen du Preco Batzorde Paritarioak, Preco Lanbidearteko Akordioak sortua, hain zuzen ere, akordio hori interpretatu eta aplikatzeko eta bere aplikazio-arauak egiteko. Batzordea 2021ean bi aldiz bildu zen, uztailaren 22an eta urriaren 28an.

Lehen saioan, Precoren ohiko funtzionamenduari buruzko hainbat gai aztertzeaz gain, indarrean dagoen Precoren kudeaketa-ereduari buruzko txosten bat aurkeztu zen. Dokumentu horretan Preco prozeduren kudeaketa-eredua eguneratzeko oinarri izan zitezkeen ildo nagusiak jaso ziren, 2013 eta 2014 urteen artean egindako Preco berriaren proiektuan oinarrituta, baina azkenean ez zen onartua izan. Dena dela, bilera horretan aho batez onartu zen lantalde bat sortzea, hain zuzen

ere urriaren 28an egindako bileran formalki eratu zena.

Precoko Batzorde Paritarioko lantaldea behin bakarrik bildu zen 2021. urtean, zehazki, azaroaren 23an.

8. ESTATUTUAREN ARABERAKO HITZARMEN KOLEKTIBOAK EZ APLIKATZEKO PROZEDURAK EBAZTEKO ORGANOA-ORPRICCE

Abenduaren 30eko 471/2013 Dekretuaren bidez sortu zen gure Autonomia Erkidegoan hitzarmen kolektiboak ez aplikatzeari buruzko desadostasunak ebazteko eskumena —Langileen Estatutuaren 82.3 artikuluan ezarritakoa— duen erakunde publikoa. Estatuan, eskumen hori Hitzarmen Kolektiboen Aholku Batzorde Nazionalari dagokio.

ORPRICCEk hiruko izaera du, eta honako hauek osatzen dute: Autonomia Erkidegoko Administrazioako bost ordezkari, Confebaskeko (enpresaburu konfederazio adierazgarriena) bost ordezkari eta sindikatu konfederazio adierazgarrietariko beste bost ordezkari (nahiz eta bost postu horietako bat hutsik geratu den, LAB erakundeak titular bat proposatzeko eskubideari uko egin diolako).

Organo hau eratu zuen dekretuak Lan Harremanen Kontseiluan ezarri zion egoitza, haren eskumenak gauzatzeko behar dituen baliabideak Kontseiluak ematea xedatuz. Hori dela eta ematen dugu haren sorreraren eta jardueraren berri, nahiz eta formalki ez den Lan Harremanen Kontseiluari dagokion jarduera.

Organo honen jarduna haren kideek 2014ko martxoaren 13an egindako eraketa bilkuran kargua hartu zutenean hasi zen. 2014an hitzarmen kolektiboa ez aplikatzeari buruzko desadostasuna ebazteko bi eskaera aurkeztu ziren. Horietako bat atzera bota zen aurkeztu eta zenbait egunetara, eta besteak arbitraje prozedura eragin zuen, erakundeak berak ez zuelako desadostasuna ebatzi, bere eraketa arauak ahalbidetzen dion moduan. Laudo horrek ez aplikatzeko eskaeraren zati bat baietsi zuen.

2015. urtean bi eskaera aurkeztu zituzten, eta 2016an bat gehiago; kasu guztietan, arbitraje laudoarekin bukatu ziren prozedurak. Hiru laudoetatik batean eskaeraren zati bat baietsi zen, eta beste bietan eskaerak ezetsi egin ziren. 2017an eta 2018an erakunde honek ez du eskaerarik jaso, eta 2019an eskabide bat aurkeztu zen, enpresak atzera eginda amaitu zena, bi aldeak ados jarri baitziren amaitu aurretik.

9. AZTERLANAK ETA ARGITALPENAK

Lan Harremanen Kontseiluak, bere lege erregulatzailan ezarritakoari jarraiki, irizpenak, ebazpenak, txostenak edo azterlanak lantzen ditu, nola eskumeneko instantzien eskaerei jarraikiz hala bere ekimenez.

INFORMAZIO SOZIOLABORALEKO PLANA

Errealitate sozioraberala aztertzeke garatzen dugun lanaren funtsezko ardatza negoziazio kolektiboa da. Aitzitik, negoziazio kolektiboari buruzko informazio hori, errealitate sozioekonomikoaren barruan kokatu eta horren aldagairik garrantzitsuenetako batzuekin lotzean aberastu egiten dela uste dugu.

Helburu horrekin, aldizkakotasun desberdineko txostenak egiten ditugu, eta guztiak ere gure webgunean kontsulta daitezke, honako helbide honetan:

**[HTTPS://WWW.CRL-LHK.EUS/EU/INFORMAZIO-SOZIOLABORALA/
TXOSTENAK-ETA-AZTERLANAK/](https://www.crl-lhk.eus/eu/informazio-sozioraberala/txostenak-eta-azterlanak/)**

BI HILEAN BEHINGO INFORMAZIO SOZIOLABORALA

Hala, EAEko errealitate sozioraberalaren azterketaren lehen maila txosten sozioraberalen hilean bebingo argitalpenean jasotzen da, eta argitalpen horretan hitzarmen kolektiboen jarraipena egiten da eta urtean zehar metatutako emaitza nagusien informazioa ematen da, betiere harira datozen beste informazio sozioraberal batzuen testuinguruan eman ere.

Txosten horretan hasierako laburpen koadro bat biltzen da, baita honako alderdi hauei buruzko datuak jasotzen dituzten koadro eta grafiko jakin batzuk ere: egoera makroekonomikoa, industria jarduera, prezioak, lan-merkatua, negoziazio kolektiboa, lan-gatazkak, enplegua erregulatzeko espedienteak, eta lan-istripuak. 2021ean, guztira, sei txosten egin dira guztira.

SEIHILEKOKO TXOSTENA: EKONOMIA-ETA LAN-ARLOAREN BILAKAERA EAEn

Txosten hauen helburua seihilekoan gertatutakoari buruzko ikuspegi zehatzagoa ematea da, eta haren gaineko alderdi garrantzitsuenak azaltzea.

2006. urtean hiru hilean behingo lau txosten argitaratzeari ekin zitzaion. 2018an, txostenak hiru hilean behin argitaratu beharrean, sei hilean behin argitaratzen hasi ginen, eta negoziazio kolektiboaren, enpleguaren eta kontratazioaren bilakaerari buruzko atal finkoak mantendu ziren.

«Euskadiko Egoera Soziolaborala, Emaizten Aurrerapena» izeneko bigarren seihilekoko txostenak urtean gertatutakoaren ikuspegi orokor zabalagoa eskaintzen du, eta horrez gain, hurrengo urteko negoziazio kolektiboaren abiapuntuko egoeraren azterketa bat biltzen du.

URTEKO TXOSTEN SOZIOLABORALA

Jarraipen soziolaboralerako plan hori urteko txosten soziolaboralak burutzen du. Bertan ekitaldi osoaren analisi osatuagoa egiten da, gogoeta kualitatibo xehatuagoa eskainiz. 2021. urtean, 2020. urteari dagokion txostena argitaratu du Kontseiluak, honako izenburu honekin: «*EAEko Egoera Ekonomikoa eta Lan Harremanak 2020an*».

Errealitate soziolaborala aztertu eta jarraitzeko zeregin hori guztia egiteko, Kontseiluak askotariko estatistika informazio garrantzitsuak aztertzen ditu, eta aldagai eta adierazleen hautaketa zehatza egiten du. Gainera, bere datu basea landu eta prozesatu du, EAEko negoziazio kolektiboari buruz eskuragarri dagoen informazio guztia bilduz, beste eremu batzuetan garatu arren, gure Autonomia Erkidegoan eragina duen informazioa ere aintzat hartuta.

Eusko Legebiltzarreko Lan eta Enplegu Batzordeak eskatuta, Lan Harremanen Kontseiluko presidenteak 2020ko urteko txostena aurkeztu zuen Batzorde horren aurrean, 2021eko azaroaren 10ean egindako bilkuran.

TXOSTEN MONOGRAFIKOAK

2021ean, LHKren Azterlanen Zerbitzuak «*EAEko plataformen ekonomiara hurbilketa bat*» izeneko txostena egin zuen.

Azterketa hori egiteko, aintzat hartu zen Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak 2019ko abenduaren 12ko bilkuran onartutako 131/2019 Legez besteko proposamenaren 4. puntuan xedatutakoa. Bada, xedapen horretan, Lan Harremanen Kontseiluari zera eskatu zitzaion, ekonomiaren uberizazioaren eta plataforma digitaletan oinarritutako enpresek sortutako lan-harremanen eredu berrien berri zehatza emateko.

Txostena egin ondoren, LHKren presidentea Lan eta Enplegu Batzordean agertu zen 2021eko azaroaren 10ean, bere ondorio nagusiak azaltzeko.

Era berean, esan behar da 2021ean azterlanen zerbitzua ordainsari aldakorreko sistemen ezarpenari buruzko lehen azterketa egiten hasi dela; nola ezarri diren horiek Espainian eta gure inguruko Europako herrialde nagusietan. Gai honi buruz lortutako informazioa urria bada ere, 2022an jarraipena emango zaie hasitako lanei. Azken txosten bat argitaratu ala ez, hori azkenean lortzen diren datuen eta azterketaren emaitzen eta ondorioen garrantziaren araberakoa izango da.

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGITURA EAEn

Aldiro behin, Kontseiluak negoziazio kolektiboaren egiturari buruzko informazioa eguneratzen du, hau da, EAEn ezartzen diren hitzarmen kolektiboen bilduma egiten du, eta haien eraginpeko langileak zein diren zehazten du. Azken eguneratzea 2018an egin zen.

2020an beste azterketa bat egiteko asmoa bazegoen ere, COVID-19 koronabirusa agertu izanak eragindako krisiaren ondorioz, 2021era atzeratu behar izan zen azterketa, kontuan hartuta iazko egoera bereziek asko zailduko zutela aurreikusitako egunetan aurrera eramatea.

Hori dela eta, 2021ean zehar azterlan hori egin da, hitzarmen kolektiboaren eraginpeko langileak sexuaren arabera banatuz, Kontseiluak egiten dituen azterketetan generoaren alderdia ere aintzat hartu ahal izateko.

Hori egiteko, aurreko kasuetan bezala, Gizarte Segurantzak urte horretako martxoaren 31n emandako informazioa hartu zen oinarritzat.

EAEko negoziazio kolektiboaren egituraren mapa eguneratzeko bi urtean behingo lan hori egitea funtsezkoa da Lan Harremanen Kontseiluari dagokion negoziazio kolektiboaren jarraipen-funtzioa betetzeko.

HAINBAT KONTSULTA NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGITURARI BURUZ

2021. urtean zehar, azterlanen zerbitzuan hainbat informazio-eskaera jaso ziren, EAEn eragina duten negoziazio kolektiboko esparruetan sartutako enpresa eta langile-kopuruari buruz, batzuetan sexuka bereizita, bai eta aldizka egindako eta argitaratutako txosten soziolaboralei buruz ere. Eskaera horietako gehienak sindikatuek eta, batez ere, enpresa-elkarteek egin zituzten, baina beste erakunde, ikertzaile eta komunikabide batzuen eskaerei ere erantzun egokia eman zaie. Mota horretako 25 kontsulta inguru egin eta erantzun ziren.

10. AURREKONTUEI BURUZKO INFORMAZIOA

Lan Harremanen Kontseiluak autonomia ekonomiko finantzarioa du Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontuen barruan, eta, funtsean, aurrekontu horien kargura emandako diru laguntzen bitartez finantzatzen du bere jarduera.

Lan Harremanen Kontseiluaren Osoko Bilkurak, 2021eko abenduaren 22ko ohiko saioan, Kontseiluaren 2021eko ekitaldirako Aurrekontua onartu zuen.

1. DIRU-SARREREN AURREKONTUA

IV. KAPITULUA

Transferentzia arruntak 2.582.771,00 €

V. KAPITULUA

Ondare-sarrerak 0,00 €

VII. KAPITULUA

Kapital-transferentziak 27.290,00 €

VIII. KAPITULUA

Finantza-aktiboen aldaketa 1.534.662,23 €

GUZTIRA **4.144.723,23 €**

2. GASTUEN AURREKONTUA

I. KAPITULUA

Langile-gastuak 1.217.915,42 €

II. KAPITULUA

Funtzionamendu-gastuak 1.347.064,36 €

VI. KAPITULUA

Inbertsio errealak 75.000,00 €

VIII. KAPITULUA

Finantza-aktiboen aldaketa 6.000,00 €

«Ezohiko gastu geroratua» 1.498.743,45 €

GUZTIRA **4.144.723,23 €**

3. 2021ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

SARRERA ARRUNTAK		2.586.382,35 €
Transferentzia arruntak	2.582.711,00 €	
Beste sarrera batzuk	3.611,35 €	
GASTU ARRUNTAK		2.370.292,06 €
Langile-gastuak	1.098.728,86 €	
Funtzionamendu-gastuak	1.271.563,20 €	
AURREZKI GORDINA		<u>216.090,29 €</u>
KAPITALAREN SARRERAK		
Kapital-transferentziak		27.290,00 €
KAPITAL-GASTUAK		
Inbertsio errealak		7.192,97 €
FINANTZAKETA AHALMENA (PREMIA)		<u>236.187,97 €</u>
FINANTZA ERAGIKETAK (DIRU SARRERAK)		
Finantza-aktiboen aldaketa		<u>500,00 €</u>
FINANTZA ERAGIKETAK (GASTUAK)		
Finantza-aktiboen aldaketa		<u>6.000,00 €</u>
AURREKONTU ARRUNTAREN SUPERABITA		<u>230.687,97 €</u>

LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES

